

# BEZEROEKIKO HARREMANAK

Bezeroekiko harreman aldetik gure enpresak alderdi ezberdinak jorratuko lituzke.

Alde batetik, denda bat sortuko genukeenez, bertan langile bat edo beste egongo lirateke lanean. Norbaitek arropa jakin bat aukeratzeko garaian, zalantzarik izango balu, gure langileak **laguntza pertsonala** eskainiko lioke, taila, kolorea, tela mota, prezioa, gure markari buruzko informazio zabala eta beste zenbait ezaugarriren inguruko informazioa eskainiz. Horrez gain, langile berak egingo luke kobratzaile lana ere, hau da, gure dendan ez legoke ordaintzeko autozerbitzua ematen duen makina edo antzekorik. Bestalde, bezeroak erositakoarekin konforme geratuko ez balira, itzultzeko aukera edukiko lukete (epe jakin baten barruan betiere) eta horretaz ere dendako langilea arduratuko litzateke, bakoitzaren kasua aztertuz eta erantzun eta konponbide egokiena aurkitzen saiatuz. Horrela, arreta **zerbitzu pertsonalizatua** edukitzea lortuko genuke.

Bestetik, internet bidezko denda ere sortuko genukeenez, interneteko zerbitzu hau sortu eta mantentzeko ere langile bat beharko genuke. Honek, dendan bertan eskaintzen ditugun arropa guztiak sarean zintzilikatuko lituzke, dendara etorri ezin dutenek erosteko aukera izan dezaten. Horrela bezeroek, beste zerbitzu bat edukiko lukete, beraiekiko harremana sendotuz eta finkatuz. Hau eginez, bezeroek **zerbitzu automatizatua** edukitzea ahalbidetuko genuke.

Gainera, bezero guztiek harpidetzeko aukera bat edukiko lukete, horrela dendan dauden eskaintza ezberdinen inguruko informazioa jasoko lukete, baita harpideentzat soilik diren eskaintza berezien berri ere.